



ARANTZA URRETABIZKAIA

Hondarribian hartu gaitu. Herritik aparte samar bizi da, toki lasai batean. Mahaian eseri gara. ZEN lorategia dugu alde batean, eta hain ondo zaindu eta maite dituen landareak bestean. Ez da idazlea bakarrik; etxekoandrea ere bada, eta gustuko du landareak zaintzea.

“Ez dut nire bizitza beti gauza bera izaterik nahi”

Onintza Enbeita

Bere burua nola izendatuko lukeen argi antzean dauka Arantza Urretabizkaia: “Tarteka liburu bat idazten duen kazetari-etxekoandrea naiz”. Hori baino gehiago da, hala ere: etxekoandrea ez ezik ama, idazlea, kazetaria, kolaboratzaile hainbat iritzi programe-tan, landareak zaintzen ditu... Gaur egun, 60 urteko emakumea ere bada. “Zahartzeko modu berria asmatu behar

dugu. Behin 60 urtera helduta, gure bizitzako lehenengo 20 urteak errepasatzen ematen dugu denbora, baina beste hainbeste ditut aurretik!”.

Zahartzarora maparik eta brujularik gabe heldu den belaunaldi bateko kideztat dauka bere burua, eta irauteak ez dio balio; ekarpenak egiten jarraitu nahi du. “Batzarretara, jardunaldietara... edonora



“Askotan emakumea bera da pentsatzen duena gutxiago balio duela bere iritziak. Ausardia falta nabarmena dago”



joaten naizenean, etxekoek nola joan den guztia galdetzen didate. Eta nire erantzuna zera izaten da: 'bueno, ideia berri pare bat atera ditut'. Eta horrek balio dit, ez dudalako nire bizitza beti gauza bera izaterik nahi”.

Oraindik ere bizi-bizi dabil hara eta hona. Gurekin egon eta gero bilera batera joateko asmoa dauka. Hondarribiko alarde mistoaren ingurukoa da batzarra. Bertan parte hartzen du urtero. “Berandu iritsiko naiz benetako berdintasunera”, azaldu digu penaz. “Badago sektore femenino kritikoa, baina oraindik ez da gehiengoa, eta gauzak aurrera doazela ikusteko presa biologikoa sartzen ari zait adinarekin”. Urteetako lanaren emaitza ikusi egin nahi du. Hainbat ekintzatan parte hartu du. Ahotsaken ere izan zen. Euskal Herrian sentsibiltate politiko eta sektore sozial gehien batu dituen ekimena izan zen Ahotsak. Parte hartzaile guztiak ziren emakumeak, baina “urtu egin zen. Euskaldunan egin genuen ekitaldi hura oso polita izan zen, eta behar dugu noizbehinka halako indar hartze bat. Handik irtenda, baina,

“60 urte ditut, baina bizi dudan hau nire garaia ere bada, eta orainetik inork ez nau mugituko”

zer? Hori da lortu behar duguna, ekimenak zabaltzea”. Litekeena da emakumeengandik sortutako ekimena izanda, jendeak ez ematea merezi zuen besteko garrantzia. Hori ez daki. Baina herrietan indar hori gorpuztu ez izanak pena ematen dio.

Bere burua etxekoandretzat dauka, eta ez da horretaz lotsatzen. “Niri landareak asko gustatzen zaizkit, eta dezente ditut etxean. Behin programa batean esan nuen Ingalaterrara joan nintzela lagun batekin lorategiak ikustera, eta lagun batek esan zidan ea ez ote nintzen lotsatzen. Zergaitik?”.

Dena den, idazlea delako ezagutu genuen geuk, eta azken aldian iritzi emaile gisa ikusi dugu batez ere. “Asko kostatu zitzaidan pauso hori ematea. Nire barruan bi mundu egon dira beti: bata subjektiboa eta bestea objektiboa. Mundu subjektiboa atera dut idazteko. Beste mundua, objektiboa, kazetari lanean erabili dudana da. Azkenean, historiak kontatzea baita”. Pentsatu dugu, iritzia ematea mundu subjektiboaren zatia izan daitekeela, baina berak gauza oso ezberdintzat ditu idaztea eta iritzia ematea. Emakumea izateagaitik bere iritzia kontuan ez hartzearen beldurra



“Badira 200 urte Frantziako Iraultza pasatu zela, eta oraindik ere emozioen munduari kateatuta gaude”

gaindituta dauka neurri batean. “Nik ez dut uste hori denik arazo bakarra”, esan digu. “Emakumeok ez gara ausartzen. Askotan emakumea bera da pentsatzen duena gutxiago balio duela bere iritziak. Ausardia falta nabarmena dago. Azken batean, esan dezakegu ez gaituztela aintzat hartzen, ez digutela deitzen; baina gure bizitza nola bideratzen dugun gure ardura da”, esan du.

Edozein gairi buruz hitz egiteko moduan ikusten ditu emakumeak. “Mendeetan zehar uste izan da emakumeak emozionalak garela, eta askotan erakutsi behar izan dugu

garena baino gogorragoak garela. Badira 200 urte Frantziako Iraultza pasa zela, eta oraindik ere emozioen munduari kateatuta gaude. Arrazoiz pixka bat behar dugu, mesedez! Hortik aurrera, pertsona bakoitzak aukeratu behar du bere bidea”. Arrazoiz zein emozioz, sendo nahi lituzke ideiak zein iritziak. Bere etxean telefonoak jotzen duenean, ordea, egunaren arabera erantzuten du. “Batzuetan, nolako eguna daukadan, sekulako mitina botatzen diet: aizu, beste hau gonbidatu duzu ez dakit zer idatzi duelako, hirugarrena halako ikerketa egin duelako, eta ni emakumea naizelako bakarrik? Beste batzuetan ordea, ez dut horrelakoetarako gogorik izaten”.

Berez, ordezkaritza gus-tuko duen arren, hala izendatuta ez dagoenean, gurago du bere izenean bakarrik berba egin. Emakumea izatearren gonbidatzen duten lekuetan ez da beste emakume idazle edo kazetarien ordezkari sentitzen. Hain zuzen, askotan izan du emakumeek kontra egiten diotenaren irudipena. “Min askoren ostean ikusi dut, emakume guztiak ez daudela askatasunaren alde. Galtzak eramatea debekatzen zigutenak emakumeak ziren”. Berari ordea, artean, literaturan... emakumeren batek zerbait argitaratzen duenean “berezi-ki” interesatzen zaio. Askotan esan diote zenbait gauza gustatu zaizkiola emakumeek egindakoak direlako, “baina ez da hori”. Badaki onartzen emakumeek egindako gauzak gustuko dituen edo ez: “Oso kritikoa naiz”.

“Literatur lehiaketetan epaile izan naizenean, askotan izena irakurri arte ez dut jakin mutila edo neska zen egilea”

Emakume izateak ez bai-tu beti sentsibiltate berezirik ematen: “Literatur lehiaketetan epaile izan naizenean, askotan izena irakurri arte ez dut jakin mutila edo neska zen egilea”. Are gehiago, inoiz pasa zaio idazlan bi izan esku artean eta ziur egon bata neska batek idatzitakoa zela eta beste mutil batek, eta kartazalak zabaltzean, justu alderantziz izatea.

Bizitzaren aurrean beste-lako ikuspegia eman dezake emakumea izateak, “baina ez nahi eta nahi ez”. Urretabizkaiak Joseba Sarrionaindiaren adibidea jarri digu. “Oso tonu lirikoan idazten du Sarrik”, eta noski badakigu gizona dela izatez. Topikoak derrigorrez baztertu behar ditugula esaten du ezer egingo badugu aurrera begira. Ez emakumeak bakarrik, pertsona askeak ikusi nahi ditu bizitzaren aurrean. “Ez daukagu bidea markatuta. Bizitzak gauza askotarako ematen digu aukera eta inoiz ez da berandu. Nik, adibidez, 60 urte ditut, baina bizi dudan hau nire garaia ere bada, eta orainetik inork ez nau mugituko”. F